



**Gaia:** Honako foru dekretu honen proiektua prestatzea: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren antolamendua, funtzionamendua eta barne araubidea arautzen dituen Foru Dekretua.

**Tramitea:** - Aldez aurreko kontsulta publikoaren amaierako txostena

**Unitate kudeatzailea:** Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, aldez aurreko kontsulta sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta ezinbestean sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, non jasoko baita zer iritzi duten arauaren eraginpean gerta litezkeen pertsonen eta ordezkari handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Agindu hori betez, Nafarroako Suhiltzaile Zerbitzuaren antolaketa, funtzionamendua eta barne-araubidea arautzen dituen Foru Dekretuaren proiektua egiten hasteko aldez aurreko kontsulta webgune honetan argitaratu da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/consulta-previa-elaboracion-un-proyecto-decreto-foral-regula-organizaci%C3%B3n-funcionamiento-r%C3%A9gimen%20interno-servicio-bomberos>

Aldez aurreko kontsultan, herritarrek parte hartzeko aukera izan dute, iradokizunak eginez. Epe hau izan dute horretarako: 2021eko otsailaren 18tik martxoaren 10era arte. Alegazioak aurkezteko bidea posta elektronikoa izan da, helbidera honetara idatziz: [bomberos.navarra@navarra.es](mailto:bomberos.navarra@navarra.es)

Parte hartzeko prozesu horretan, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko langile operatiboek ekarpenak jaso dira.

Egindako ekarpenen xehetasuna eta haien balorazioa "aldez aurreko kontsulta prozesu parte-hartzailearen iradokizunen zerrenda" eranskinean azaltzen dira.

NAFARROAKO SUHILTZAILEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

(Su firma consta en el expediente)

## ERANSKINA. - ALDEZ AURREKO KONTSULTAKO PARTE-HARTZE P ROZESUKO IRADOKIZUNEN ZERRENDA

### 1. PROPOSAMENGILEA / Aurkezpen-data: 2021-02-21

IRADOKIZUNA	BALORAZIOA
1.- Sartzeko deialdietan sustapen-txanda ezabatzea edo murriztea.	- Ez txertatu. Proiektu honetatik kanpoko gaia.
2.- Suhiltzaileen lekualdatze-lehiaketetan erabilitako baremoa aldatzea, suhiltzaileen antzintasuna bakarrik kontatuta edo gehiago puntuatuta, edo, bestela, zerbitzuan egindako nahitaezko prestakuntza asko puntuatzea.	- Baremazio espezifiko bat planteatuko da.
3.- Euskara eremu euskaldunetan izan ezik, ez puntuatzea hizkuntzak lekualdatze-lehiaketarako, lanpostuarekin lotutako ikastaroen puntuazioa handituz.	- Ez txertatu.
4.- Kabora lanposturako mailaz igotzean, gehiago puntuatzea kabo lanetan aritutako bitarteko langilea izan bada.	- Baremazio espezifiko bat planteatuko da.
5.- Kaboen lekualdatze-lehiaketetan erabilitako baremoa aldatzea, kabo lanetan aritutako bitarteko langilea izan bada, hori puntuatzeko.	- Baremazio espezifiko bat planteatuko da.
6.- Parkeko eguneroko minimoetan kaboak eta suhiltzaileak bereiztea.	- Ez txertatu. Eskualde eta Parkean FAren eremua.
7.- Suhiltzaileen kaboek jasotzen dituzten ordainsariak handitzea.	- Ez txertatu. Proiektu honetatik kanpoko gaia.

### 2. PROPOSAMENGILEA / Aurkezpen-data:2. proposamengilea/Aurkezpen-data: 2021-02-25

IRADOKIZUNA	BALORAZIOA
1.- Birjarpen-tasaren funtzionamendua. Lanpostu hutsa sortzea zerbitzu osagarrietara igarotzean	- Ez txertatu. Proiektu honetatik kanpoko gaia.
2.- Parke handietan sartzeko edo egoteko mugak ezartzea.	- Ez txertatu. Adinagatiko diskriminazioa.
3.- Ibilgailuen gehieneko bizi-muga sartzea	- Ez txertatu.
4.- Laguntzaileek zereginak beren lan-parkean egin ditzaten ezartzea.	- Ez txertatu. Bigarren Jardueraren FDaren eremua.
5.- Langilerik ez badago, lanorduak gehitzeko aukera, egutegian orduak edo aparteko orduak eginez.	- Ez txertatu. Ez dagokio proiektu honi.

6.- Lekualdatze-lehiaketetan erabilitako baremoa aldatzea, suhiltzaileen antzintasuna soilik kontuan hartuta.	- Baremazio espezifiko bat planteatuko da.
7.- Aginte-postuetara sartzea oposizio-lehiaketa bidez.	- Ez txertatu. 8/2005 Foru Legearen berezko esparrua.

### 3. PROPOSAMENGILEA/Aurkezpen-data: 2021-02-28

IRADOKIZUNA	BALORAZIOA
1.- Sartzeko deialdietan sustapen-txanda ezabatzea edo murriztea.	- Ez txertatu. Proiektu honetatik kanpoko gaia.
2.- A mailako eta B mailako lanpostuetarako eskatzen diren titulazio-betekizunak aldatzea.	- Ez txertatu. Ez dagokio proiektu honi.
3.- Lekualdatze- eta igoera-lehiaketetan erabilitako baremoa aldatzea, suhiltzaile-antzintasunari puntuazio handiagoa emanez.	- Baremazio espezifiko bat planteatuko da.